


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,3 igo dira 2025eko ekainean

Urte arteko terminoetan, 2025eko ekainean, 2024ko ekainarekin alderatuta, kostuak % 2,5 igo dira

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,3 igo da 2025eko ekainean aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. 2024ko hil beraren aldean, kostuak % 2,5 handitu dira.

Kostuak % 0,3 igo dira Eraikuntzan eta % 0,2 Ingeniaritza zibilean. 2024ko ekainaren aldean, prezioak % 2,5 igo dira Eraikuntzan eta % 2,6 Ingeniaritza zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka Ehunekoa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren —2025eko maiatza— aldean, **lehengaien** kostuak % 0,4 igo dira, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, ez dira aldatu. Urte arteko terminoetan, lehengaien kostua % 3,3 igo da eta eskulanarena % 0,4.

Lehengaien kostuak hil artean % 0,4 igo dira Eraikuntzaren sektorean, eta % 0,3 Ingeniaritza zibilarenean. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehengaien kostuak % 3,2 igo dira eta Ingeniaritza zibilekoak % 3,3.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2025

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	123,4	0,3	2,5
Eraikinak	123,1	0,3	2,5
Ingeniaritza zibila	124,5	0,2	2,6
Lehengaiak	125,8	0,4	3,3
Eraikinak	125,5	0,4	3,2
Obra zibila	127,1	0,3	3,3
Laneskua	116,9	0,0	0,4

Oinarria 2021=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Uztailaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektoreak kontsumituriko lehengai nagusien prezioei dagokienez, honako azpisektore hauetan izan ziren urte arteko igoera handienak 2025eko ekainean: *Material eta ekipa elektrikoen fabrikazioa* (% 9,3) eta *Metalezko produktuen fabrikazioa —makineria eta ekipoa izan ezik—* (% 4,6) azpisektoreetan. Aitzitik, sektorean erabilitako *Koke-lantegien eta petrolioa fintzeen* lehengaien kostua % 10,4 jaitsi da.

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Ekaina 2025

	m / m-12
Ateratze-industriak	2,7
Kokeak eta petrolioak fintzen	-10,4
Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	1,9
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipokak salbu	4,6
Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	9,3

Oinarria 2021=100

(p) Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Uztailaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62